

ZIERBENAKO UDALERRIRAKO BEGIRALEEN PROGRAMARI LOTURIKO 4 PLAZA BETETZEKO HAUTAPEN-PROZESUAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK

1.- Sarrera.

1.- Sarrera

Gehilanean, bere jardun eremuaren barnean, sustatu nahi duen eremuetako bat enplegua eta langabezian dauden pertsonen garapena da, jendarteak, oro har, berak egiten dituen jardueretatik onurak lortu ahal ditzan. Dinamika honetatik, La Arena hondartzarako, Bizkaiko hondartza jendetsuenetako bat, eta Zierbenako udalerako oro har uda garaian zehar beharrezkoak diren zerbitzuak sostengatzeko enplegu programa bat proposatzen da. Honez gain, eremuaren enplegarritasuna hobetzen laguntzea bilatzen da.

2.- Deialdiaren xedea

Oinarri hauen bidez, aldi baterako langileen kontratazioarako hautapen-prozesuaren deialdia egiten da, ondoko lanpostuak betetzeko:

- 4 Begirale

Zerbitzu honen prestazioarekin ondokoa lortu nahi da:

- Zierbena udalerraren garapena sustatzea.
- Tokiko enplegua aldi baterako kontratuekin sustatzea, udan zehar.
- Zierbena udalerrria hobetzea eta egokitzea, beharrezkoak diren zerbitzuez eta baliabideez dohatuz, udako garaian.

3.- Kontratazioaren baldintzak. Lanpostuaren betebeharrak

Kontratazioaren baldintzak:

- Kontratu mota: Aldi baterako obra edo zerbitzu jakineko kontratua.
- Lanaldi mota: Jornada Osoa.
- Kontratuaren iraupena: 5 hilabete.
- 4 begirale jornada osoan kontratatuak izango dira, ondorengo denbora tartean:
 - Bi begirale ekainaren 1etik urriaren 2ra
 - Bi begirale ekainaren 1etik urriaren 30era
- Urrian asteburuetan egingo da lana soilik.
- Ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean lana asteko egun guztietan egingo da, asteburuak eta jaiegunak barne.
- Lanaldi mota: lanaldi zatitua

- Ordainsaria: E.A.E.ko Gizarte Ekimenezko Ikastetxeen Hitzarmen Kolektiboaren arabera
- Kontratuak frogaldia du.

Lanpostuaren betebeharrak:

- Trafikoa zaintzea.
- Aparkalekuak zaintzea.
- Pantalanak zaintzea.
- Udaltzainei laguntzea.
- Aparkalekuen kontrola egitea.
- Lan-partea egitea.
- Udalerrian burutzen diren jarduera desberdinetan laguntzea.
- Arau-hausle izan litezkeenei ideia burutik kentzea.
- Elkarbizitzarako arauak errespetatu daitezzen ardura hartzea.
- Urriko asteburuetan 10:00etan La Arena hondartzako komunak zabaltzea.

Kontratuak hasteko aurreikusitako datak:

- 2016ko ekainaren 1ean

4.- Hautagaiek bete behar dituzten baldintzak.

Deialdi honetan parte hartzeko hautagaiek ondoko gaitasun-baldintzak bete behar izango dituzte:

- Espainiako herritartasuna izatea, Europar Batasuneko lurraldeetako herritarra izatea, eta Europako Erkidegokoa ez den atzerriko herritarra bada legezko lan eta bizileku baimena izatea Espainian
- Hamazortzi urte beteta izatea, eta, inolaz ere , nahitaezko erretiroko gehieneko adina ez gainditzea.
- Zereginak egokiro egiteko gaitasunik gabe uzten duen inolako ezgaitasun funtzionalik ez izatea.
- Langabea izatea, erabateko prestasunarekin, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda izatea, bai eskabidea aurkeztean bai kontratazio unean.
- Zierbenan erroldatuta egotea, 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen.
- Gehilan 2000ren webgunean izena emanda izatea: www.gehilan2000.com

5.- Hautapen-prozesua, nola parte hartu eta eskabideak aurkezteko epea.

Hautapen prozesua:

Hautapena Kalifikazio-Epaimahaiak egingo du, betiere "Gehilan 2000 S.L."ren datu basean izena emanda eta aginduzko dokumentazioa epean eta behar bezala beteta entregatu badute Zierbenako Kultur Etxean Gehilan 2000, S.Lri zuzenduta, non, Oinarri hauetan ezarritakoen arabera hautagaiak elkarrizketatuko diren eta aurkezturiko dokumentazioari buruzko baremoak ezartzen hasiko diren.

Kalifikazio-Epaimahaiak ahalmena izango du izan daitezkeen zalantzak ebazteko, bai eta prozesuaren garapen egokia izateko beharrezkoak diren akordioak hartzeko ere. Halaber, behar denean, hautagaiak aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, zuzentzeko edo/eta erreklamazioa epea posibilitatea baloratuko du.

Forma:

Hautapena, Gehilan 2000 S.L.ren datu baseko hautagaien artean eta oinarri hauetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztenen artean baino ez da egingo.

Aurrekoaz gain, eskainitako lanpostu-hornikuntzaren prozesuan parte hartu nahi dutenek, hala jasota gera dadin, Gehilan 2000 S.L.ren bulegoetan eta Zierbenako Kultur Etxean emango den inprimakiaren bidez eskaera aurkeztu beharko dute. Aipatu inprimakia erakunde horren web orritik deskargatzeko aukera ere egongo da: www.gehilan2000.com

Eskabideak Gehilan 2000 S.L.ren bulegoetako Erregistroan aurkeztuko dira, San Juan Kalea 14, Muskiz (Bizkaia), 9:00etatik 14:00etara bitarteko ordutegia, astelehenetik ostiralera, ondoko **DERRIGORREZKO DOKUMENTAZIOAREKIN** batera:

- Eskabidea betea eta izenpetua.
- NAN edo AIZren kopia eta, behar denean, lan eta bizileku baimenaren kopia.
- Lanbideko DARDE
- Lanbide Euskal Orientazio Zerbitzuan izaniko inskripzio aldiaren txosten eguneratua

Oharra: Txosten hori Lanbideren web orrialdetik lor daiteke: www.lanbide.euskadi.eus "Nire Lanbidenet" atalean, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emana duten erabiltzaile guztiek izan behar duten erabiltzailea eta Gakoa sartuta. Txosten hori Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoetan ere lor daiteke.

- Curriculum Vitae gaurkotua, NAN neurriko argazkiarekin.
- Zierbenako Udalak igorritako errolda-agiri eguneratua

Bestalde, Lehiaketa Faseko merezimenduen baloraziorako nahi duten hautagaiak **BORONDATEZKO DOKUMENTAZIOA** aurkezteko aukera izango dute:

- Euskara ezagutza frogatzen duen titulu ofizialaren kopia.
- Prestakuntza osagarriari dagokion ikastaroak egin izana ziurtatzen duen agiriaren edo agirien kopiak, ondoko alor hauetan: begirale, lehen sorospenak, salbamendu eta sorospenak eta gaitasun sozialak.
- Segurtasun Pribatuko Identitate Profesionaleko Txartelaren (TIP)kopia

Eskaera aurkezteko epea amaituta, parte hartzeko eskabidean alegatua izan ez den merezimenduen frogagirik ez da onartuko.

Ez eskaera egiteak, ezta hautapen prozesuan parte hartzeak ere, ez du eskubide bat ere sortuko hautagai aukeratuaren alde, baldin eta eginbeharrak bete ez baditu edo ekarritako dokumentazioan zehaztasunik eza edo faltsutasunen bat antzematen bada.

Aurkezteko epea eta tokia:

Eskaerak aurkezteko epea: **2016ko maiatzaren 20tik 26ra izango da, biak barne.**

Eskaerak jasotzeko edo/eta emateko tokiak ondokoak dira:

Zierbenako Kultur Etxea
San Roman auzoa 6B (48508) Zierbena
Tfno. 94 636 60 07

Oinarri hauek webgune hauetan egongo dira eskuragarri: Zierbenako Udala www.zierbena.net eta Gehilan 2000 S.L. www.gehilan2000.com.

6.- Hautagaiak onartzea.

Maiatzaren 31an lanpostuak betetzeko aukeratutako pertsonen zerrenda argitaratuko da, lortutako puntuazioekin. Baita, 4 ordezkoren zerrenda ere.

7.- Kalifikazio-Epamahaia.

Gehilan 2000, S.L.eko teknikariez osatutako Kalifikazio Epaimahai bat eratuko da, hautaketarako kide anitzeko organo gisara. Kalifikazio Epaimahaiko partaideen izendapena barne mailan egingo da. Partaide guztiek hitz eta boto eskubidea izango dute.

Kalifikazio - Epaimahaiak bere esku izango ditu hautapen-lehiaketaren garapen, balorazio eta kalifikazioa; partaideak autonomia osoz arituko dira euren zuzentza teknikoaren jardunean, eta prozeduraren gardentasunaren zein objektibotasunaren,

konfidentzialtasunaren frogen eta deialdiaren oinarrien betetze zorrotzaren zein hautapen-prozesurako ezarritako epeak betetzearen erantzuleak izango dira.

Kalifikazio- Epaimahaiak egoki joko balu zenbait aholkulari espezialista sartu ahal izango luke bileretan. Aholkulariok euren espezialitate teknikoetara mugatuko lirateke euren jarduna, eta horietan oinarrituta bakarrik arituko lirateke elkarlanean hautapen-organoarekin, eta beraz, hitzarekin baina botorik gabe arituko lirateke. Kalifikazio-Epaimahaiak, egoki joko balu, hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, akatsak zuzentzeko eta/edo erreklamazioak egiteko epea eman ahal izango luke.

Honako deialdi honen oinarrien aplikaziotik gerta daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta ez-aurreikusitako kasuetan egin beharko dena ere Kalifikazio-Epaimahaiak ebatziko ditu apelaziorik gabe.

8.- Hautapen-sistema eta prozesuaren garapena.

Hautapen-prozesuak bi fase izango ditu: lehiaketa fasea eta elkarrizketa fasea: Azken emaitza hautagaiek bi faseetan lortutako puntuen batuketa izango da.

Puntuazioan berdinketa ematen bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan erregistraturiko langabezia antzintasun gehien duen hautagaiak izango du lehentasuna (Lanbideren Inskripzio-aldien txostenean agertzen den azken altako data hartuko da erreferentziazat), eta berdinketak jarraitzen badu, adinean nagusia denak izango du lehentasuna.

LEHIAKETA FASEA:

Hautagaiei lehiaketa fasean alegatutako merezimenduak baloratuko zaizkie. Puntuazioa Kalifikazio- Epaimahaiak emango du ondoko baremo hauek kontuan hartuz:

1. Langabeziako antzintasun-denbora: 4 puntu gehienez.

- a) Langabeziako antzintasunaren arabera honako puntuazio hau emango da:
- Langabeziako antzintasuna ≥ 36 hilabete..... 4 puntu.
 - Langabeziako antzintasuna ≥ 24 eta < 36 hilabete.....3 puntu.
 - Langabeziako antzintasuna ≥ 12 eta < 24 hilabete..... 2 puntu.
 - Langabeziako antzintasuna < 12 hilabete.....1 puntu.

Oharra: Langabeziako denbora zenbatzeko, kontuan hartuko da Lanbidek igorritako agirian dagoen datatik igarotako denbora.

2. Euskara ezagutza: 1 puntu gehienez

- a) Euskara-ezagutza egiaztatzen duen titulazio ofizialaren arabera, honako puntu hauek emango dira:
- HAEE-IVAPek emandako 3. hizkuntza-eskakizuna; HABEk emandako 3. mailaren frogagiria; Osakidetzako 3. hizkuntza-eskakizuna; Ertzaintzako 2. hizkuntza-eskakizuna, Euskararen Gaitasun Agiria (EGA); Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) Nafarroakoa; Euskaltzaindiaren D tituluaren frogagiria; Irakasleen 2. hizkuntza-eskakizuna; EAEko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako Gaitasun -Ziurtagiria edo 5. ikastaroarena, bai eta Madrilgo Hizkuntza Ofizialarena ere (ikasketa plan zaharra); Gaitasun Mailaren Ziurtagiria, EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako menderatze maila operatibo eta eraginkorra (ikasketa-plan berria) 2 puntu.
 - HAEE-IVAPek emandako 2. hizkuntza-eskakizuna, HABEk emandako 2. mailaren frogagiria, Osakidetzako 2. hizkuntza-eskakizuna, ; Ertzaintzako 1. hizkuntza-eskakizuna, Irakasleen 1. hizkuntza-eskakizuna, EAEko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako 4. ikastaroaren frogagiria (ikasketa plan zaharra), EAEko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako maila aurreratuaren frogagiria (ikasketa-plan berria)..... 1 puntu.
 - HAEE-IVAPek emandako 1. hizkuntza-eskakizuna, HABEk emandako 1. mailaren frogagiria, Osakidetzako 1. hizkuntza-eskakizuna, EAEko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako 3. ikastaroaren frogagiria (ikasketa plan zaharra), EAEko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialek emaniko tarteko mailaren ziurtagiria (ikasketa-plan berria)..... 0,5 puntu.

OHARRA: Euskara-ezagutza ziurtatzen duen maila altueneko agiria besterik ez da kontuan hartuko.

(Aitortutako agiri ofizialekin egiaztatu)

3. Begirale, lehen sorospen, salbamendu eta sorospen eta gaitasun sozialetan trebakuntza: 5 puntu gehienez

- Prestakuntza ikastaroa 200 ordukoa edo gehiagokoa bada:.....ikastaro bakoitzeko 1 puntu.
- Prestakuntza ikastaroa 50 ordukoa edo gehiagokoa bada eta 200 ordukoa baino gutxiagokoa:.....ikastaro bakoitzeko 0,5 puntu.
- Prestakuntza ikastaroa 50 ordu baino gutxiagokoa bada:ikastaro bakoitzeko 0,25 puntu.

(Prestakuntza agiriekin edo diplomekin egiaztatu.)

NOTA: Ez dira kontuan hartuko iraupena, agiria eman izenaren data eta edukiak adierazten ez dituzten prestakuntza ikastaroak. Ez dira kontuan hartuko une honetan burutzen ari diren ikastaroak ere. Profesionaltasun Egiaztagiri partzialak prestakuntza ez arautuarekin berdinduko dira. Kalifikazio - epaimahaiak bere irizpide teknikoan arabera erabakiko du, interesdunak erantsitako agirien arabera, zeintzuk diren kontuan har daitezkeen ikastaroak bete behar den lanposturako.

4. TIP gaikuntza: 2 puntu gehienez

- - Indarrean edo iraungita.....2 puntu

Elkarrizketa fasea:

Elkarrizketa pertsonala lehiaketa fasean 3 puntu edo gehiago atera dituztenei soilik egingo zaie. Elkarrizketako puntuazioa lehiaketa fasean izandako puntuazioari gehituko zaio. Puntuazio hau, eskainitako lau lanpostuak betetzeko lau hautatuak zeintzuk izango diren erabakiko duen puntuazioa izango delarik.

Proba honen egitura laburra izango da, 15 minutu inguru, eta erdi egituratutako eta zuzendutako izaera izango du. Elkarrizketa guztietan galdera sorta bat erabiliko dira, tarte bat utziz hautagaiekiko interakzioan agertutako alderdi garrantzitsuenak aztertzeko.

Elkarrizketa eskainitako lanposturako pertsonaren egokitasuna zehaztean zentratuko da. Honetarako, ondorengo irizpideak eta bere haztapen elkartua izango du kontuan:

- ✓ Erantzukizun pertsonala, barneratzea eta araura egokitzea 0,5 puntu.
- ✓ Aurre egiteko era asertiboa 1 puntu
- ✓ Beste baliabide batzuk eta gaitasun sozialak 1 puntu
(enpatia, komunikazio interpertsonala, rapport, gatazkaren kudeaketa, negoziazioa)
- ✓ Enpleguarekiko jarrera orokorra eta lanpostuarekiko interes berezia 1 puntu
- ✓ Egonkortasun emozionala eta autokontrola 1 puntu
- ✓ Inguruaren eta lanpostuaren ezagutza: udalerria, eginkizunak, eguneroko arazoak...0,5 puntu

5. Elkarrizketa: 0 - 5 puntu

9.- Oinarriak onartzea.

Hautapen-prozesuan parte hartzeak berekin ekarriko du espresuki oinarri hauen onarpena. Hautapen-organoak oinarrietan aipatutako izan ez den edozein alderdi erregulatzeko ahalmena izango du, bai eta beraien edukia interpretatzeko ere.

Muskizen, 2016ko apirilaren 25ean.